MINISTERIO
DE EMPLEO
Y SEGURIDAD SOCIAL

GIZARTE SEGURANTZAREN
DIRUZAINTZA OROKORRA

TA. 0040-E

# ESKABIDEA:
# HITZARMEN BEREZIAREN ALTA/BAJA/DATU-ALDAKETA/ ETENDURA/BERRIRO HASTEA/ HEDAPENA.

**DATUEN BABESA**.- Norberaren Datuen Babesari buruzko abenduaren 13ko (EAO, 1999ko abenduaren 14koa) 15/1999 Lege Organikoaren 5. artikuluan aurreikusi diren ondoreetarako, inprimaki honetan jartzen dituzun datuak Afiliazio Fitxategi Nagusian sartuko direla jakinarazten dizugu. Fitxategi hori 1994ko uztailaren 27ko Aginduaren bidez araupetu zen. Aipatu datuei dagokienez, datuok atzitu, zuzendu eta deuseztatzeko eskubideak erabili ahal izango dituzu, 15/1999 Lege Organikoan adierazten denaren arabera.

# JARRAIBIDEAK

## OROKORRAK

- Agiri hau makinaz edo letra larriz bete behar da, zuzenketarik eta zirriborrorik gabe.
- Atzealde grisa duten eremuak Gizarte Segurantzaren Administrazioak betetzekoak dira.
- Agiri hau edozein hitzarmen bereziren alta, baja eta datu-aldaketen eskabideak aurkezteko erabiliko da.

## 1. ESKATZAILEAREN DATUAK: (Kasu guztietan adierazi behar dira)

**1.1 Izena eta deiturak**: hitzarmen bereziaren alta, baja, datu-aldaketa, etendura edo hedapena edo hari berriro ekiteko eskatzen duenaren izen-deiturak adierazi behar dira, osorik.
**1.2 Gizarte Segurantzako Zenbakia**: eskatzailearen Gizarte Segurantzako Zenbakia edo Afiliazio Zenbakia jarri behar da.
**1.3 Jaioteguna**: eskatzailearen jaioteguna adierazi behar da (data osoa).
**1.4 Identifikazio-agiriaren mota**: jarri “X” behar den tokian: Nortasun Agiri Nazionala (N.A.N.), Atzerritar Txartela edo Pasaportea.
**1.5 Identifikazio-agiriaren zenbakia**: Identifikazio-agiriaren zenbakia jarri behar da; Atzerritar Txartela bada, Atzerritarraren Identifikazio-Zenbakia (A.I.Z.) jarri behar da.
**1.6 Egoitza**: eskatzailearen ohiko egoitzaren helbidea adierazi behar da. Herri bidearen eta udalerri edo udalerriaz beheko lurralde-eremuko erakundearen izenak osorik jarriko dira.
**1.7 Datu telematikoak.-** Datu hauek idazteak Gizarte Segurantzaren informazio-berriemateak onartzen direla esan nahi du.

## 2. ESKABIDEAREN DATUAK (Kasu guztietan bete behar da)

“X” batez markatu behar da zer eskatzen den: hitzarmen bereziaren alta, baja edo datu-aldaketa. Halaber, adierazi behar da berrogeita hamabi urtetik gorakoen langabezi sorospena jasotzen dutenen hitzarmen berezia eteteko edo hari berriro ekiteko eskatzen den, langabezi prestazio ekonomikoa eteteagatik edo hari berriro ekiteagatik, edo itzulitako emigrante zendu batek edo atzerriko gizarte aurreikuspeneko sistema baten pentsioa jasotzen duen espainiar zendu batek edo Espainian egoiliartutako Suitzako pentsiodun zenduak sinatutako hitzarmen berezia titularraren senitartekoak hartzeko hedatzeko eskatzen den. Hitzarmen berezi bat hildako titularraren senitartekoak hartzeko hedatzeko eskatuz gero, “HILDAKO EMIGRANTEA EDO ATZERRIKO GIZARTE AURREIKUSPENEKO SISTEMA BATEN PENTSIODUNA” atala bete behar da.

**Hitzarmena hasteko/azkentzeko/datuak aldatzeko/eteteko/hedatzeko edo hari berriro ekiteko eskatzen den eguna:**
**Alta** eskabideetan, hitzarmen berezia hasteko eskatzen den eguna adierazi behar da, oro har; nolanahi ere, haren karia gertatzen denetik laurogeita hamar egun pasatutakoan eskatzen bada, ez da adierazi behar noiz nahi den hastea; aitzitik, halakoetan aurkezpen eguna jarri behar da. Bestelakoetan, datu hauek eman behar ditu eskatzaileak:

- Hitzarmen berezia arrunta bada, eragin duen karia gorabehera: Gizarte Segurantzaren araubide berezian langile edo antzeko gisa baja eman zaion egunaren hurrengo eguna, ordaindutakoaren araberako langabezi prestazioa agortu den egunaren hurrengo eguna, aldi baterako ezintasunaren luzapena hasi den eguna, edo eskabide eragin duen ezintasun iraunkorraren pentsioaren deuseztapena edo berrikuspena ezarri duen ebazpena edo epaia eman den eguna.
- Hitzarmen berezia 52 edo 55 urtetik gorakoen langabezia-sorospena jasotzen dutenena bada: langabezia-sorospena jasotzen hasi den eguna edo, aurrekoa bada, eskabidea aurkeztu den eguna.
- Hitzarmen berezia goi mailako kirolariena bada: goi mailako kirolari bihurtu den hilaren 1a.
- Baldin hitzarmen berezia lansaioa murrizturik eta soldata murrizketaren arabera gutxiturik duen langileari badagokio: lansaioaren murrizketa hasi den eguna.
- Hitzarmen berezia legezko grebaren edo ugazaben itxieraren ziozkoa bada: greba edo ugazaben itxiera hasi den eguna.
- Baldin eta hitzarmen berezia mendekotasun egoeran diren pertsonen zaintzaile ez-profesionalari badagokio: prestazioa jasotzen hasten den data.
- **Baja** eskabideetan hitzarmen berezia azkentzeko eskatzen den eguna adierazi behar da.
- **Datu-aldaketen** eskabideetan datu-aldaketa gertatu den eguna adierazi behar da.
- Hitzarmen berezia **eteteko** edo **hari berriro ekiteko** eskabideetan berrogeita hamabi urtetik gorakoen sorospena eten den edo hari berriro ekin zaion eguna jarri behar da, edo etendura edo berriro ekitea ekarri duen egoera hasi den eguna.
- Hitzarmena **hedatzeko** eskabideetan eskabidea aurkezten den egunaren hurrengo eguna jarri behar da.

**2.1 Datu-aldaketaren/etenduraren karia**: datu-aldaketa edo hitzarmen bereziaren etendura gertatu denean soilik bete behar da.
**2.2 Hitzarmen bereziaren bajaren karia**: “X” batez markatu behar da hitzarmen bereziaren baja eskatzeko karia.

## 3. HITZARMEN BEREZIARեN MOTA: Kasu guztietan bete behar da

- **3.1 Generikoa**: Alta emateko, azkentzeko edo datuak aldatzeko eskatzen den hitzarmen bereziaren mota zehaztu behar da “X” batez.
- **3.2 Emigrante espainiarrak eta haien seme-alabak**: Alta emateko, azkentzeko, datuak aldatzeko edo hedatzeko eskatzen den hitzarmen bereziaren mota identifikatu behar da “X” batez. Mota honetako hitzarmen bereziaren inguruko eskabidea aurkezten dutenek ereduko hirugarren orriko 11. atala bete behar dute (TA.0040, orri gehigarria).
- **3.3 Osasun-laguntza**: “X” batez markatu behar da osasun-laguntza estaltzeko baliatu nahi den edo baja eskatzen den hitzarmen berezia. Honelakoetan ereduko hirugarren orriko 10. atala bete behar da (TA.0040, orri gehigarria).
- **3.4 Gobernuarteko nazioarteko erakundeetako funtzionario edo enplegatu espainiarrak**: “X” batez zehaztu behar da non dagoen erakundearen egoitza, Espainian edo atzerrian. Honelakoetan ereduko hirugarren orriko 12. atala bete behar da (TA.0040, orri gehigarria).
- **3.5 Mendekotasun egoeran diren pertsonen zaintzaile ez-profesionala:** “X” batez adierazi behar da hitzarmen berezia lanaldi osoarekin edo partzialarekin sinatu denez; partziala bada, asteko orduen kopurua zehaztu behar da eta langabezia-sorospena 52 urtetik gorakoena edo 55 urtetik gorakoena den argitu behar da. Halaber, “X” jarri behar da, baldin oinarria igotzeko eskatzen bada.
- **3.5.1 Mendeko pertsonari buruzko datuak:** pertsona horren datu guztiak adierazi behar dira. Izen-deiturak, identifikazio-agiria, A.Z., egoitza, mendeko pertsonari dagokion prestazioaren emakida-data eta mendekotasun-gradua eta -maila.
- **3.6 Kotizazio gehigarrirako hitzarmen berezia:** “X” batez markatu behar da lan-kontratua azkendu duen enplegua erregulatzeko espedientearen laukia, eta 52 edo 55 urtetik gorakoentzako laguntza jasotzen denez zehaztu. Nahitaez idatzi behar da enplegu-erregulaziorako bi espedienteetako baten ondorioz enpresan baja hartu den data.

## 4. HITZARMEN BEREZI ARRUNTAREN KARIAK

**Alta eskabideetan baizik ez da adierazi behar eta soilik aurreko atalean hitzarmen berezia “arrunta” dela zehaztu bada**: “X” batez adierazi behar da zergatik eskatzen den hitzarmen berezi arruntaren alta.

## 5. HITZARMEN BEREZIAREN ERAGINKORTASUNA ETA EDUKIA (Alta eskabideetan bete behar da)

**Ondoreak:** hautatzen dena “X” batez markatu behar da, baina hitzarmen berezia mota hauetako batekoa bada soilik: arrunta, 52 edo 55 urtetik gorakoen langabezia-sorospenaren jasotzailea, erretiro kotizaziodun langabezia-sorospenaren jasotzailea den etenkako langile finkoa edo lansaioa murriztuta daukan langilea (soldata proportzio berean txikituta) .

**Kotizazio-oinarria**: ondoreetarako bezala. Hitzarmen berezia goi mailako kirolariena bada, “tartekoa” atalean hautatutako kotizazio-oinarria adierazi behar da. Oinarri eguneratua aukeratu ahal izango da, baldin eta harpidedunak urriaren 13ko TAS/2865/2003 Agindua aldarazi duen otsailaren 22ko TAS/482/2008 Aginduaren 6.2.1 a) edo b) artikuluan ezarririk dauden beharkizunak betetzen baditu. Baldin eta hitzarmen berezia LAABri dagokion gutxieneko oinarriaz bestelako oinarriaren kariz eskatzen bada, kotizazio-oinarria berez igotzeko eskatu ahal izango da, urteroko aldizkakotasunez, hitzarmen berezia sinatzen den Gizarte Segurantzako araubideko gehieneko kotizazio-oinarria igotzen den hein berean.

## 6. AITORPENA

Adieraz ezazu zertan jardungo duzun aurrerantzean.

## 7. ORDEZKARIAREN DATUAK

Ordezkariaren datu guztiak adierazi behar dira: izena edo sozietatearen izena, identifikazio-agiria, GSZ/KKK eta egoitza.

## 8. JAKINARAZPENAREN DATUAK

“X” batez adierazi behar duzu non nahi dituzun jaso Gizarte Segurantzaren Administrazioaren jakinarazpenak, eskatzailearen datuetan adierazitako egoitzan edo beste batean. Beste batean jaso nahi badituzu, ondoko atalean adierazi behar duzu.

## 9. KUOTEN ORDAINKETA HELBIDERATZEKO DATUAK

Kuoten ordainketa helbideratuz gero, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak zorduntzeko agindua bidaliko du zure bankura edo kutxara kotizazioak borondatezko epealdian ordain ditzan.
Helbideratze honek kotizazioak borondatezko epealdian ordaintzeko eta arauzko tasen edo oinarrien aldaketen ondoriozko erregularizazioak ordaintzeko bakarrik balio du, inolaz ere ez atzerakinak ordaintzeko.
Zure bankuak edo kutxak zeuk adierazitako kontuan zordunduko dizu zenbatekoa; hilaren azken egunean nahikoa diru eduki behar duzu kontu horretan.
Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak esango dizu zein hiletan zordunduko zaizun kontuan lehenengoz eta zuk aurreko hileko kuotak Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak emango dizun kotizazio-buletinaren bidez ordaindu beharko duzu.

## AURKEZTU BEHAR DUZUN AGIRI-SORTA

- **Eskatzailearen identifikazio-agiria**, (Nortasun Agiri Nazionala -N.A.N.-, Atzerritar Txartela edo Pasaportea, kasuan kasukoa). Lehengo agiriko daturen bat aldatu nahi izanez gero, jatorrizko agiria aurkeztu behar da, aldaketa frogatzeko:

**HITZARMEN BEREZI GENERIKOA**

- Araubide orokorreko, Ikatz-meatzaritzako Araubide Bereziko edo Itsasoko Araubide Bereziko besteren konturako langilea edo berdinetsia (I. taldea): bajaren aurreko hamabi hiletan lan egindako enpresen ziurtagiriak, aldi horretako gertakizun arruntei dagokien kotizazio-oinarriak agertzen dituztenak.
- Kotizaziopeko langabezia-prestazioa jaso izan duen langilea: EEZPren ziurtagiria, prestazio ekonomikoa eten edo etengo den eguna eta egoera horretako kotizazio-oinarria zehazten dituena (jatorrizkoa zein kopia).
- 52 edo 55 urtetik gorakoen langabezia-sorospena edo erretiro kotizaziodun langabezia-sorospena jasotzen duen etenkako langile finkoa:ordaindutakoaren araberako langabezi sorospena izan duten langileek aurkeztu beharrekoez gainera, sorospena emateko ebazpena (jatorrizkoa edo kopia). Baldin eta langabezia-egoera enplegu-erregulaziorako espediente batek eragin badu, administrazio-ebazpen egokiaren fotokopia aurkeztu behar da.
- Pentsioa deuseztatu zaien pertsonak, aldi baterako ezintasuna luzatuta duten langileak eta eskatutako pentsioa ukatu ondoren araubide batean baja hartu duten langileak: hurrenez hurren, pentsioa deuseztatu, aldi baterako ezintasuna luzatu edo pentsioa ukatu duen ebazpena edo epai irmoa (jatorrizkoa edo kopia).
- 52 edo 55 urtetik gorakoen langabezia-sorospena eten edo azkendu zaien pertsonak: sorospena eten edo azkendu duen ebazpena (jatorrizkoa zein kopia).
- Legezko greban edo ugazaben itxieran dauden langileak: legezko grebaren edo ugazaben itxieraren epealdia eta aurreko hileko eguneko kotizazio-oinarria zehazten dituen ziurtagiria, enpresak emana.
- Lansaio partzialeko kontratua duten langileak: gertakizun arruntei dagokien kotizazio-oinarria adierazten duen ziurtagiria, enpresak emana.
- Lansaioa murriztuta duten langileak: langilea lansaio murriztuarekin hasi den eguna adierazten duen ziurtagiria, enpresak emana; horrez gainera besteren konturako langileei eskatzen zaien guztia ere bai.
- Denboraldiko langileak: langileak lanari utzi dion eguna zehazten duen ziurtagiria, enpresak emana, eta ordaindutakoaren araberako langabezi sorospena izan duten langileek aurkeztu beharreko ziurtagiria.
- Goi mailako kirolariak: hala direlako frogagiria.
- Norberaren konturako langilea: baja gertatu den hileko eta aurreko bi hiletako kotizazio-buletinen frogagiriak (jatorrizkoak edo kopiak).
- Mendekotasun egoeran diren pertsonen zaintzaile ez-profesionala: Mendeko pertsonari prestazio ekonomikoa ematen dion ebazpenaren kopia eta maiatzaren 11ko 615/2007 E.D.ren 1.2. artikuluan aipatzen diren ahaidetasuna edota inguruabarrak egiaztatzen dituen agiri-sorta.
- Kotizazio gehigarria enplegua erregulatzeko 76/2000 eta 25/2001 espedienteetan: ekainaren 19ko 1010/2009 EDk arautatako laguntza jasotzeko eskaera, EEZPri bidalia berak ezarritako eredu ofizialean.

Internet

**www.seg-social.es**

MINISTERIO
DE EMPLEO
Y SEGURIDAD SOCIAL

GIZARTE SEGURANTZAREN
DIRUZAINTZA OROKORRA

MINISTERIO DE EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

GIZARTE SEGURANTZAREN DIRUZAINTZA OROKORRA

**TA.0040-E (Orria:1/2)**

Aurkezpen-erregistroa | Sarrera-erregistroa

# ESKABIDEA: HITZARMEN BEREZIAREN ALTA/BAJA/DATU-ALDAKETA/ETENDURA/BERRIRO HASTEA/HEDAPENA

## 1. ESKATZAILEAREN DATUAK

1.1 LEHEN DEITURA | BIGARREN DEITURA | IZENA | 1.2 GIZARTE SEGURANTZAKO ZENBAKIA

1.3 JAIOTEGUNA: Eguna / Hila / Urtea

1.4 IDENTIFIKAZIO-AGIRIAREN MOTA: N.A.N.: | ATZERRITAR TXARTELA: | PASAPORTEA:

1.5 IDENTIFIKAZIO-AGIRIAREN ZENBAKIA

1.6 EGOITZA: BIDE MOTA | HERRI-BIDEAREN IZENA | BLOKEA | ZK. | BIS | ESKAIL | SOL. | ATEA | POSTA KOD.

UDALERRIA/UDALERRIAZ BEHEKO LURRALDE-EREMUKO ERAKUNDEA | PROBINTZIA

1.7 DATU TELEMATIKOAK: HELBIDE ELEKTRONIKOA

GIZARTE SEGURANTZAREN INFORMAZIO-BERRIEMATEAK JASOTZEA ONARTZEN DUT BAI ☐ EZ ☐ TELEFONO MUGIKORRA

## 2. ESKABIDEAREN DATUAK (Jarri “X” bat behar den tokian)

ALTA ☐ BAJA ☐ DATU-ALDAKETA ☐

ETENDURA ☐ BERRIRO HASTEA ☐ HEDAPENA ☐

HITZARMENA HASTEKO/AZKENTZEKO/DATUAK ALDATZEKO/ETEKO/HEDATZEKO EDO HARI BERRIRO EKITEKO ESKATZEN DEN EGUNA: Eguna / Hila / Urtea

2.1 DATU-ALDAKETAREN/ETENDURAREN KARIA

2.2 HITZARMEN BEREZIAREN BAJAREN KARIA

- ☐ BORONDATEZ
- ☐ HERIOTZA
- ☐ PENTSIODUN BILAKATZEA
- ☐ BESTE BATZUK (zehaztu):
- ☐ GIZARTE SEGURANTZAREN ARAUBIDE BATEN APLIKAZIO-EREMUAN SARTZEA
- ☐ ESPAINIAKO LURRALDEAN BIZI IZATEN HASTEA
- ☐ ESPAINIAKO LURRALDETIK KANPO BIZI IZATEA

## 3. HITZARMEN BEREZIAREN MOTA

### 3.1 GENERIKOA

- ☐ ARRUNTA
- ☐ LANSAIO PARTZIALEKO KONTRATUA
- ☐ LANGABEZIA-SOROSPENA JASOTZEN DUEN ALDIZKAKO LANGILE FINKOA
- ☐ LANSAIOAREN MURRIZKETA, SOLDATA MURRIZKETAREN ARABERA GUTXITURIK
- ☐ 52 URTETIK GORAKOENTZAKO LANGABEZIA-SOROSPENA
- ☐ ALTAN ORDAINSARI GABE
- ☐ GOI MAILAKO KIROLARIA
- ☐ DENBORALDIKO LANGILEA ETA FRUTEN, BARAZKIEN ETA LANDARE-KONTSERBAGINTZAREN SISTEMA BEREZIA
- ☐ DENBORALDIKO LANGILEA JARDUERARIK GABEKO EPEALDIETAN
- ☐ EUROPAKO ERKIDEGOKO ESKUBIDE-TRANSFERENTZIA
- ☐ ADUANA-AGENTZIETAKO LANGILEAK, 1513/2009 E.D.
- ☐ 55 URTETIK GORAKOEN LANGABEZIA-SOROSPENA (20/12 LED)

LEGEZKO GREBA ☐ UGAZABEN ITXIERA ☐ KARIA LEGEZKO GREBA EDO UGAZABEN ITXIERA BADA (adierazi amaituko den eguna): Eguna / Hila / Urtea

### 3.2 EMIGRANTE ESPAINIARRAK ETA HAIEN SEME-ALABAK

- ATZERRIAN BIZI DIREN EMIGRANTEAK ☐
- ATZERRIAN BIZI DIREN EMIGRANTEEN SEME-ALABAK ☐
- ITZULITAKO EMIGRANTEAK ☐
- ITZULITAKO EMIGRANTEEN SEME-ALABAK ☐
- ESPAINIAKO EGOILIAR IZANIK ATZERRIKO ONTZIETAN ARI DIREN EMIGRANTEAK ☐

### 3.3 OSASUN LAGUNTZA

ESPAINIAN EGOILIARTUTAKO SUITZAKO PENTSIODUNAK ☐

### 3.4 NAZIOARTEKO GOBERNUARTEKO ERAKUNDEETAKO FUNTZIONARIO EDO ENPLEGATU ESPAINIARRAK

EGOITZA ESPAINIAN ☐ EGOITZA ATZERRIAN ☐

### 3.5 MENDEKOTASUN EGOERAN DIREN PERTSONEN ZAINTZAILE EZ-PROFESIONALA- 20/2012 LED (BOE 2012/07/14)

- ☐ DEDIKAZIO OSOA
- ☐ DEDIKAZIO PARTZIALA — Asteko ordu kopurua
- ☐ 52 EDO 55 URTETIK GORAKOENTZAKO LANGABEZIAREN ZIOZKO SOROSPEN-HARTZAILEA
- ☐ OINARRIA IGOTZEA
- ☐ REVALORIZACIÓN BASE MÍNIMA RÉGIMEN GENERAL INCREMENTO DE BASE

3.5.1 SINATZAILEAK ZAINTZEN DUEN MENDEKO PERTSONARI BURUZKO DATUAK. (2/2 orriaren atzealdean bete)

### 3.6 KOTIZAZIO GEHIGARRIRAKO HITZARMEN BEREZIA: ENPLEGUA ERREGULATZEKO 76/2000 ETA 25/2001 ESPEDIENTEAK

ERREGE DEKRETUA: 196/2010 ☐ 1783/2011 ☐

ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEA: 76/2000 ☐ 25/2001 ☐

ADIN HONETATIK GORAKOEN LANGABEZIA-SOROSPENA: 52 URTE ☐ 55 URTE ☐

Enplegurako Estatuko Zerbitzu Publikoari baimena eman zaio kotizatu beharra betetzeko arduradun gisa jardun dezan.

ENPLEGU-ERREGULAZIORAKO ESPEDIENTEAREN KARIZ ENPRESA UZTEAREN DATA: Eguna / Hila / Hurtea

OHARRA: Hizkuntza ofizialkidea duten Autonomia-Erkidegoetan, inprimaki hau bi hizkuntzetan dago eskueran.

TA.0040-E (Orria: 1/2) *(15-09-2015)*

MINISTERIO DE EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

GIZARTE SEGURANTZAREN DIRUZAINTZA OROKORRA

# TA.0040-E (Orria: 2/2)

BIGARREN ORRIA NAHITAEZ BETE BEHAR DA.

| ESKATZAILEAREN IZENA ETA DEITURAK | IDENTIFIKAZIO-AGIRIAREN ZK. | GIZARTE SEGURANTZAKO ZK. |
|---|---|---|
| | | |

## 4. HITZARMEN BEREZI ARRUNTAREN KARIAK

- ☐ BAJA ARAUBIDE BATEAN PENTSIOA ESKATZEAGATIK
- ☐ BAJA GIZARTE SEGURANTZAKO ARAUBIDE BATEAN EZINTASUN IRAUNKOR OSOAREN PENTSIODUNA IZANIK
- ☐ ORDAINDUTAKOAREN ARABERAKO LANGABEZI PRESTAZIOA AGORTU
- ☐ BAJA GIZARTE SEGURANTZAKO ARAUBIDE BATEAN
- ☐ 65 URTETIK GORAKO LANGILEA IZATEA ETA 35 URTE BAINO GEHIAGO KOTIZATUTA IZATEA
- ☐ ENPLEGU EDO JARDUERA ANIZTASUNARI UZTEA
- ☐ 52 EDO 55 URTETIK GORAKOEN LANGABEZI SOROSPENA AZKENDU
- ☐ 52 EDO 55 URTETIK GORAKOEN LANGABEZI SOROSPENA ETEN
- ☐ 52 EDO 55 URTETIK GORAKOEN LANGABEZI SOROSPENA UKATU
- ☐ EZINTASUN IRAUNKORRAREN PENTSIOA BERRIKUSI
- ☐ EZINTASUN IRAUNKORRAREN PENTSIOA EDO ERRETIRO PENTSIOA DEUSEZTATU
- ☐ KONTRATUAREN KOTIZAZIO-OINARRIA BAJAREN AURREKO 12 HILETAKO KOTIZAZIO-OINARRIEN BATEZ BESTEKOA BAINO TXIKIAGOA

## 5. HITZARMEN BEREZIAREN ERAGINKORTASUNA ETA EDUKIA

ONDOREAK

- ☐ ARAUBIDEAN BAJA HARTU EDO HITZARMENA ESKATZEA ERAGIN DUEN EGOERA HASI ETA HURRENGO EGUNA
- ☐ ESKABIDEA AURKEZTEN DEN EGUNA

KOTIZAZIO-OINARRIA

GUTXIENEKOA ☐ KOTIZATUTAKO AZKEN URTEKO BATEZ BESTEKOA ☐ GEHIENEKOA ☐ TARTEKOA: (Adierazi hautatutako kotizazio-oinarriaren zenbatekoa) ______

6.2.1 a) edo b) ARTIKULUAN EZARRIRIK DAUDEN BEHARKIZUNAK BETETZEAREN KARIZ KOTIZAZIO-OINARRIA EGUNERATZEKO ESKABIDEA ☐

KOTIZAZIO-OINARRIA ARAUBIDEAREN GEHIENEKO KOTIZAZIO-OINARRIA IGOTZEN DEN PORTZENTAJEAN MODU AUTOMATIKOAN IGOTZEKO ESKABIDEA (GUTXIENEKO OINARRIAREN ARABERAKO AUKERARI DAGOKIONEAN IZAN EZIK) ☐

## 6. ADIERAZPENA (Adierazi zertan jardungo duzun aurrerantzean)

## 7. ORDEZKARIAREN EDO/ETA HITZARMEN BEREZIARI DAGOZKION KUOTEN SARRERAREN ARDURADUNAREN DATUAK, ESKATZAILEA BARIK BESTE PERTSONA BAT DENEAN

ATZEALDEAN BETE

## 8. JAKINARAZPENAREN DATUAK (Jar “X” behar den tokian)

Jakinarazpenak jasotzeko, interesatuak ondoko egoitza lehenetsi du:

ESKATZAILEAREN EGOITZA (1.6 atala) ☐ BESTEREN BAT ☐

EGOITZA

| BIDE MOTA | HERRI BIDEAREN IZENA | BLOKEA | ZK. | BIS | ESKAI. | SOL. | ATEA | POSTA KODEA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | | |

| UDALERRIA / UDALERRIAZ BEHEKO LURRALDE-EREMUKO ERAKUNDEA | PROBINTZIA | TELEFONOA |
|---|---|---|
| | | |

## 9. KUOTEN ORDAINKETA HELBIDERATZEKO DATUAK

BANKU-KONTUAREN NAZIOARTEKO KODEA (IBAN)

ZORDUNKETA DAGOKION KONTUAREN TITULARRAREN IDENTIFIKAZIO-AGIRIA

IDENTIFIKAZIO-AGIRIAREN MOTA: NAN: ☐ I.F.K.: ☐ ATZERRITAR TXARTELA: ☐ PASPRT.: ☐

IDENTIFIKAZIO-AGIRIAREN ZK.

| LANGILEAREN SINADURA | ORDEZKARIAREN SINADURA ETA ZIGILUA | ARDURADUNAREN SINADURA ETA ZIGILUA | ESKABIDEAREN ONGITZEA ETA HOBEKUNTZA JAKINARAZTEKO DILIGENTZIA |
|---|---|---|---|
| | | | Data:<br>NAN:<br>SINADURA: |

ESKATUTAKO ZUZENKETA EDOTA HOBEKUNTZA

**ESKABIDEA BIDALI ZAION ORGANOA: G.S.D.O.EKO PROBINTZI ZUZENDARITZA EDO ADMINISTRAZIOA:**

OHARRA: Hizkuntza ofizialkidea duten Autonomia-Erkidegoetan, inprimaki hau bi hizkuntzetan dago eskueran.

# TA.0040-E (Orria: 2/2. Atzealdea)

## 3.5.1 SINATZAILEAK ZAINTZEN DUEN MENDEKO PERTSONARI BURUZKO DATUAK

IZEN-DEITURAK

IDENTIFIKAZIO-AGIRIAREN MOTA (Jar "X" behar den tokian)

N.A.N.: ☐ ATZERRITAR TXARTELA: ☐ PASAPORTEA: ☐

IDENTIFIKAZIO-AGIRIAREN ZK. | GIZARTE SEGURANTZAKO ZK.

EGOITZA

BIDE MOTA | HERRI BIDEAREN IZENA | BLOKEA | ZK. | BIS | ESKAIL. | SOL. | ATEA | POSTA KODEA

UDALERRIA / UDALERRIAZ BEHEKO LURRALDE-EREMUKO ERAKUNDEA | PROBINTZIA | TELEFONOA

MENDEKOTASUN-GRADUA: ☐ MAILA: ☐

MENDEKO PERTSONARI DAGOKION PRESTAZIOAREN EMAKIDA-DATA: Eguna ☐ Hila ☐ Urtea ☐

## 7.1 ORDEZKARIAREN DATUAK

IZENA ETA DEITURAK EDO SOZIETATEAREN IZENA

IDENTIFIKAZIO-AGIRIAREN MOTA (Jar "X" behar den tokian)

N.A.N.: ☐ I.F.K.: ☐ ATZERRITAR TXARTELA: ☐ PASAPORTEA: ☐

IDENTIFIKAZIO-AGIRIAREN ZK. | GIZARTE SEGURANTZAKO ZK.

EGOITZA

BIDE MOTA | HERRI-BIDEAREN IZENA | BLOKEA | ZK. | BIS | ESKAIL. | SOL. | ATEA | POSTA KOD.

UDALERRIA / UDALERRIAZ BEHEKO LURRALDE-EREMUKO ERAKUNDEA | PROBINTZIA | TELEFONOA

## 7.2 ORDEZKARIAREN EDO/ETA HITZARMEN BEREZIARI DAGOZKION KUOTEN SARRERAREN ARDURADUNAREN DATUAK, ESKATZAILEA BARIK BESTE PERTSONA BAT DENEAN

IZENA ETA DEITURAK EDO SOZIETATEAREN IZENA

IDENTIFIKAZIO-AGIRIAREN MOTA (Jar "X" behar den tokian)

N.A.N.: ☐ I.F.K.: ☐ ATZERRITAR TXARTELA: ☐ PASAPORTEA: ☐

IDENTIFIKAZIO-AGIRIAREN ZENBAKIA | GIZARTE SEGURANTZAKO ZK. | K.K.K.

EGOITZA

BIDE MOTA | HERRI-BIDEAREN IZENA | BLOKEA | ZK. | BIS | ESKAIL. | SOL. | ATEA | POSTA KOD.

UDALERRIA / UDALERRIAZ BEHEKO LURRALDE-EREMUKO ERAKUNDEA | PROBINTZIA | TELEFONOA

ORDEZKARIAREN IZENA ETA DEITURAK [BALDIN ETA ARDURADUNA PERTSONA JURIDIKOA BADA]

IDENTIFIKAZIO-AGIRIAREN MOTA (Jar "X" behar den tokian)

N.A.N.: ☐ ATZERRITAR TXARTELA: ☐ PASAPORTEA: ☐

IDENTIFIKAZIO-AGIRIAREN ZENBAKIA | GIZARTE SEGURANTZAKO ZENBAKIA

MINISTERIO
DE EMPLEO
Y SEGURIDAD SOCIAL

GIZARTE SEGURANTZAREN
DIRUZAINTZA OROKORRA

# TA.0040-E (Orri gehigarria)

Aurkezpen-erregistroa | Sarrera-erregistroa

## AITORPENAK: HITZARMEN BEREZIA

### HIRUGARREN ORRIA ONDOKO KASUETAN SOILIK BETE BEHAR DA:

- **HITZARMEN BEREZIAK ESPAINIAN BIZI DIREN SUITZAKO PENTSIODUNEI OSASUN ARRETA EMATEKO (10. ATALA). 16. artikulua, TAS/2865/200 agindua.**
- **EMIGRANTEEN ETA HAIEN SEME-ALABEN HITZARMEN BEREZIA (11. ATALA). TAS/2865/2003 Aginduaren 15. artikulua.**
- **NAZIOARTEKO GOBERNUARTEKO ERAKUNDEETAKO FUNTZIONARIO EDO ENPLEGATU ESPAINIARREN HITZARMEN BEREZIA (12. ATALA). TAS/2865/2003 Aginduaren 14. artikulua.**

| ESKATZAILEAREN IZENA ETA DEITURAK | IDENTIFIKAZIO-AGIRIAREN ZK. | GIZARTE SEGURANTZAKO ZK. |
|---|---|---|
| | | |

### 10. ESPAINIAN BIZI DIREN SUITZAKO PENTSIODUNEN DATU ZEHATZAK. (16. artikulua eta Hirugarren xedapen gehigarria.)

| ESPAINIARA ITZULI DEN EDO OHIKO EGOITZA ESPAINIAN FINKATU DEN EGUNA ADIERAZI BEHAR DA, EDO PENTSIOA AINTZATETSI DEN EGUNA (GEROAGO GERTATU BADA) | ALDI BATERAKO EGONALDIAREN IRAUPENA | ADIERAZ EZAZU LAN EGINDAKO HERRIALDEKO PENTSIOA, ERRENTA EDO OROHARREKO KOPURUA SORTU DUEN GERTAKIZUNA |
|---|---|---|
| Eguna ☐ Hila ☐ Urtea ☐ | | GERTAKIZUN ARRUNTAK: GAIXOTASUN ARRUNTA EDO LANEKOA EZ DEN ISTRIPUA EDO ERRETIROA ☐ LANEKO GERTAKIZUNAK: LAN-ISTRIPUA EDO LANBIDE GAIXOTASUNA ☐ |

- **PENTSIOA ORDAINTZEN DUEN EDO LAN EGINDAKO HERRIALDEA** ☐
- **SENITARTEKO ONURADUNAK*** (Senitarteko onuradunak ez badira sartzen berariazko eremuan, adieraz ezazu zenbat orri gehitu dituzun): ☐

| DEITURAK ETA IZENA | | | | SINADURA |
|---|---|---|---|---|
| AHAIDETASUNA | IDENT.-AGIRIAREN MOTA | IDENT.-AGIRIAREN ZK. | GIZARTE SEGURANTZAKO ZK. | |
| | | | | |

| DEITURAK ETA IZENA | | | | SINADURA |
|---|---|---|---|---|
| AHAIDETASUNA | IDENT.-AGIRIAREN MOTA | IDENT.-AGIRIAREN ZK. | GIZARTE SEGURANTZAKO ZK. | |
| | | | | |

- **PENTSIODUNA EDO ESPAINIAN EGOLIARTUTAKO SUITZAKO PENTSIODUNA**

| DEITURAK ETA IZENA | HERIOTZA EGUNA | N.A.N. / PASAPORTEA | GIZARTE SEGURANTZAKO ZK. |
|---|---|---|---|
| | | | |

HITZARMEN BEREZIAREN TITULARRAREN SENITARTEKOAREN AITORPENA (Jar "X" behar den tokian)

ESKATZAILEA, ESPAINIAN BIZI DEN SUITZAKO PENTSIODUNAREN SENITARTEKOAK, HONAKO HAU ADIERAZTEN DU: BAI ☐ EZ ☐ BA AL DUZU ESKUBIDERIK GIZARTE SEGURANTZAREN OSASUN LAGUNTZA JASOTZEKO?

SINADURA

### 11. EMIGRANTEEN ETA HAIEN SEME-ALABEN HITZARMENEKO BERARIAZKO DATUAK. (15. artikulua)

#### 11.1 ATZERRIAN EGOILIARTUAK

ATZERRIAN EGINDAKO LANBIDE JARDUERA

ATZERRIAN LANEAN HASITAKO EGUNA: Eguna ☐ Hila ☐ Urtea ☐

ATZERRIAN BIZI IZANDAKO HERRIALDEA

EGUN HONETATIK: Eguna ☐ Hila ☐ Urtea ☐

EGUN HONETARA: Eguna ☐ Hila ☐ Urtea ☐

#### 11.2 ESPAINIARA ITZULITAKOAK

ATZERRIAN EGINDAKO AZKEN LANBIDE JARDUERA

Eguna ☐ Hila ☐ Urtea ☐

AZKEN LANBIDE JARDUERA EGINDAKO HERRIALDEA

ESPAINIARA ITZULI DEN EGUNA: Eguna ☐ Hila ☐ Urtea ☐

(Jar "X" behar den tokian)

BAI ☐ EZ ☐ ITZULITAKO EMIGRANTEAK HAUXE **ADIERAZI DU**: BA AL ZAUDE GIZARTE AURREIKUSPENEKO ARAUBIDE JURIDIKOREN BATEAN?

BAI ☐ EZ ☐ ITZULI DEN EMIGRATZAILEAK **BAIMENA** EMATEN DIO GSDOriEGOITZAREN ETA BIZILEKUAREN EGIAZTAPEN SISTEMAN KONTSULTAK EGITEKO (523/2006 ED, APIRILAREN 28KOA)

SINADURA

### 12. NAZIOARTEKO GOBERNUARTEKO ERAKUNDEETAKO FUNTZIONARIO EDO ENPLEGATU ESPAINIARRAK. (14. artikulua)

NAZIOARTEKO GOBERNUARTEKO ERAKUNDEAREN IZENA

ADIERAZPENA (Jar "X" behar den tokian)

BAI ☐ EZ ☐ ESPAINIAKO HERRI ADMINISTRAZIOAREN ZERBITZUKO FUNTZIONARIOA ZARA ETA ONDORIOZ ESPAINIAKO GIZARTE SEGURANTZAREN ARAUBIDE BATEAN ZAUDE?

BAI ☐ EZ ☐ EGON ZARA INOIZ ESPAINIAKO GIZARTE SEGURANTZAREN ARAUBIDEETAKO BATEAN?

SINADURA

OHARRA: Hizkuntza ofizialkidea duten Autonomia-Erkidegoetan, inprimaki hau bi hizkuntzetan dago eskueran.

## 10. ESPAINIARA ITZULITAKO EMIGRANTEEN ETA GIZARTE AURREIKUSPENEKO PENTSIODUNEN BERARIAZKO DATUAK ESPAINIAN EGOILIARTUTAKO ATZERRIKO EDO SUITZAKO PENTSIODUNA

**- Alta eskabideetan edo datuak aldatzeko eskabideetan bete behar da -**

**Espainiara itzuli den edo ohiko egoitza Espainian finkatu den eguna adierazi behar da, edo pentsioa aintzatetsi den eguna (geroago gertatu bada):** emigrante espainiarra Espainiara behin betirako edo aldi baterako itzuli den eguna adierazi behar da edo, beharrezkoa denean, hau da, emigrantearen heriotza dela bide eskabidea haren senitartekoek aurkezten dutenean, beraiek itzuli diren eguna. Atzerriko gizarte aurreikuspeneko sistemen pentsiodunei eta Suitzako pentsiodunei dagokienez, ohiko egoitza Espainian ezarri duten eguna adierazi behar da edo, geroagokoa bada, atzerriko gizarte aurreikuspeneko sistemaren pentsiodun bihurtu diren eguna.

**Aldi baterako egonaldiaren iraupena**: hitzarmen berezia aldi baterako itzulitako emigrante batena edo haren senitartekoena bada soilik bete behar da.

**Senitarteko onuradunen datuak**: hitzarmen bereziaren titularraren onuradunak adierazi behar dira, osasun-laguntza jasoko dutenak, alegia. 3 senitarteko baino gehiago badira, agiri honen behar hainbat ale beteko dira.

**Hildako emigrantearen edo atzerriko gizarte aurreikuspeneko pentsiodunaren edo Suitzako pentsiodunaren datuak**: eskabidea hildakoa titular izan den hitzarmen berezia hedatzeko aurkezten bada, hitzarmen bereziaren aurreko titularraren identifikazio-datuak adierazi behar dira, bai eta hil den eguna ere.

**Hitzarmen bereziaren titularraren senitartekoaren aitorpena**: hitzarmen berezia hildako emigrante espainiarraren edo atzerriko gizarte aurreikuspeneko sistemaren pentsiodunaren edo suitzar pentsiodunaren senitarteko batek eskatzen badu, honako aitorpen hau egin behar du behar den atala “X” batez markatuta.

## 11. EMIGRANTEEN ETA HAIEN SEME-ALABEN HITZARMENEKO BERARIAZKO DATUAK

Atal hau atzerrian egoiliartuek (11.1) edo Espainiara itzulitakoek (11.2) alta eskatuz gero soilik bete behar da.

## 12. GOBERNUARTEKO ERAKUNDEETAKO FUNTZIONARIO EDO ENPLEGATU ESPAINIARRAK

Atal hau gobernuarteko erakundeetako funtzionario edo enplegatuek alta eskatuz gero soilik bete behar da.

## AURKEZTU BEHAR DUZUN AGIRI-SORTA

**EMIGRANTEEN ETA HAIEN SEME-ALABEN HITZARMEN BEREZIA**

Baldin eta eskatzailea ez badago afiliatuta Espainiako Gizarte Segurantzan, TA.1 agiria -AFILIAZIOAREN/GIZARTE SEGURANTZAKO ZENBAKIAREN ESKABIDEA- eta bertan eskatzen diren agiriak aurkeztu behar dira.

**- Atzerrian dauden emigranteak eta haien seme-alabak:**

* Inskribatutako herrialdeko agintariek emandako lan- edo egonaldi- baimena, jatorrizkoa edo kopia, Espainiako Lan Agregatutzak edo Kontsulatutzak erkatua, edo
* Enpresak emandako lan ziurtagiria, enbaxadak erkatua eta itzulia, eta enbaxadak emandako bizileku-ziurtagiria.

**- Itzulitako emigranteak eta haien seme-alabak:**

* Jarduera egin dela, utzi zaiola eta atzerriko Gizarte Segurantzan egon dela frogatzen duen agiria (azken nomina, lan-kontratuaren likidazioa, ...), jatorrizkoa edo kopia.
* Espainiako lurraldera itzuli den eguna adierazten duen ziurtagiria, Migrazioen Antolamendurako Zuzendaritza Orokorrak emana, edo, bestela, kontsulatu baja frogatzen duen agiria.

**- Espainiako egoiliar izanik atzerriko ontzietan ari diren emigranteak**: * Ontziratze-kontratua, jatorrizkoa edo kopia.

**OSASUN-LAGUNTZAKO HITZARMEN BEREZIA**

Baldin eta eskatzailea ez badago afiliatuta Espainiako Gizarte Segurantzan, TA.1 agiria -AFILIAZIOAREN/GIZARTE SEGURANTZAKO ZENBAKIAREN ESKABIDEA- eta bertan eskatzen diren agiriak aurkeztu behar dira.

**- Suitzako Gizarte Segurantzaren pentsiodunak:**

* Eskatzailea Suitzako Gizarte Segurantzari buruzko legeria federalaren ez besteren arabera emandako pentsio edo errenta baten titularra dela frogatzen duen agiria, jatorrizkoa edo kopia.
* Naziotasunaren frogagiria, jatorrizkoa edo kopia.
* Ohiko egoitza Espainian ezarri zuen egunaren frogagiria, jatorrizkoa edo kopia.
* 10. atalean (“SENITARTEKO ONURADUNAK”) aipatutako pertsonekin familia harremanak daudela frogatzen duen agiria, jatorrizkoa edo kopia. * Idatz-zati honetan ezin daiteke pentsioen titular den seniderik sar.

**GOBERNUARTEKO ERAKUNDEETAKO FUNTZIONARIO EDO ENPLEGATU ESPAINIARREN HITZARMEN BEREZIA**

- Eskatzailea gobernuarteko nazioarteko erakunde bateko funtzionarioa edo enplegatua dela frogatzen duen ziurtagiria, jatorrizkoa. Erakundearen egoitza Espainian badago, Ministerio de Asuntos Exteriores y de Cooperación delakoak berretsita egon behar da; erakundearen egoitza atzerrian badago, enbaxadak edo kontsulatuak erkatuta egon behar da.

MINISTERIO
DE EMPLEO
Y SEGURIDAD SOCIAL

GIZARTE SEGURANTZAREN
DIRUZAINTZA OROKORRA

## GORDEKINA: HITZARMEN BEREZIAREN ALTA/BAJA/ DATU-ALDAKETA/ETENDURA/BERRIRO HASTE/ HEDAPENERAKO ESKABIDEARENA (TA.0040-E)

Agiri honetan adierazten den datan, ondoan azaltzen diren datu hauek sartu dira Gizarte Segurantzaren Probintzi Zuzendaritza edo Administrazio honen erregistroan:

LANGILEAREN DATUAK

DEITURAK ETA IZENA

GIZARTE SEGURANTZAKO ZK. | IDENTIFIKAZIO-AGIRIAREN ZK.

HITZARMEN MOTA

ALTA ☐ BAJA ☐ DATU-ALDAKETA ☐
ETENDURA ☐ BERRIRO HASTEA ☐ HEDAPENA ☐

ALTA / BAJA / DATU-ALDAKETAREN DATA
Eguna ___ Hila ___ Urtea ___

ALDARAZTEKO ESKATU DEN DATUA

TA.0040-E (Gordekina)
*(12-11-2012)*

EBAZPEN-EPEA: Eskabide honi buruzko ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da, eskabide hori Gizarte Segurantzaren Probintzi Zuzendaritzaren edo Gizarte Segurantzaren Administrazioaren erregistroan sartzen den egunetik aurrera zenbatzen hasita. Epe hori eten egin ahal izango da, baldin eta okerrak ongitzeko eta agiriak eta ebazpiderako beste elementu batzuk aurkezteko eskatu behar bada, eta bai Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42.5. artikuluan azaltzen diren gainerako kasuetan ere. Epe hori igaro eta berariazko ebazpenik eman ez bada, eskabideari oniritzi zaiola ulertuko da. Hau guztia 30/1992 Legearen 42.4. artikuluan ezarririk dagoenaren ondoreetarako jakinarazi dizugu.

Sarrera-erregistroa

---

MINISTERIO
DE EMPLEO
Y SEGURIDAD SOCIAL

GIZARTE SEGURANTZAREN
DIRUZAINTZA OROKORRA

## ONGITZEA EDO HOBEKUNTZA: HITZARMEN BEREZIAREN ALTA/BAJA/DATU-ALDAKETA/ETENDURA/BERRIRO HASTE/ HEDAPENERAKO ESKABIDEARENA (TA.0040-E)

Hitzarmen bereziko langilearen, jarraian datuak agertzen direnaren, alta edo baja emateko edota datu-aldaketa egiteko eskabideak ez ditu betetzen Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 70. artikuluan edo/eta urtarrilaren 26ko 84/1996 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Araudi Orokorrean ezarririk dauden beharkizunak; horrenbestez, ezin daiteke berariazko ebazpenik eman eskabidearen aurkezpen-egintzan bertan.

LANGILEAREN DATUAK

DEITURAK ETA IZENA

GIZARTE SEGURANTZAKO ZK. | IDENTIFIKAZIO-AGIRIAREN ZK.

HITZARMEN MOTA

ALTA ☐ BAJA ☐ DATU-ALDAKETA ☐
ETENDURA ☐ BERRIRO HASTEA ☐ HEDAPENA ☐

ALTA / BAJA / DATU-ALDAKETAREN DATA
Eguna ___ Hila ___ Urtea ___

ALDARAZTEKO ESKATU DEN DATUA

30/1992 Legearen 71. artikuluan ezarririk dagoenarekin bat etorriz, eskatzaileak HAMAR EGUNeko epean ongitu beharko du adierazi den okerra, edo/eta aipatu diren agiriak aurkeztu.

Baldin okerra ongitzen ez badu edo eskatu zaizkion agiriak aurkezten ez baditu, bere eskaera bertan behera utzi duela ulertuko dugu, eta horren ondorioz, ebazpen egokia emango dugu.

TA.0040-E (Ongitzea)
*(12-11-2012)*

EBAZPEN-EPEA: Eskabide honi buruzko ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da, eskabide hori Gizarte Segurantzaren Probintzi Zuzendaritzaren edo Gizarte Segurantzaren Administrazioaren erregistroan sartzen den egunetik aurrera zenbatzen hasita. Epe hori eten egin ahal izango da, baldin eta okerrak ongitzeko eta agiriak eta ebazpiderako beste elementu batzuk aurkezteko eskatu behar bada, eta bai Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42.5. artikuluan azaltzen diren gainerako kasuetan ere. Epe hori igaro eta berariazko ebazpenik eman ez bada, eskabideari oniritzi zaiola ulertuko da. Hau guztia 30/1992 Legearen 42.4. artikuluan ezarririk dagoenaren ondoreetarako jakinarazi dizugu.

Irteera-erregistroa